

Birdeklinaketa

ADITZ-FLESIOEKINGO «(e)N» ARIAZKO ATZIZKIA

Adibide bat izango dugu, agian, birdeklinaketaren zer denaz errexen jabetzeko bide; hona hemen:

«Peruk bi etxe zituen, bat herriko kalean eta bestea urruti
»xamarreko MENDI baten. Udaberria hasi orduko MENDIKO
»etxera aldatzen zen, kalekoa erosoagoa zenarren MENDIKOA
»alaiagoa bait-zen. MENDIKOAREN atetzarrak giltza ere arabe-
»rako zuen; kalekoarena txiki bezain aundi eta zakarra zen MEN-
»DIKOARENA. Ihaz bi etxeetako ateei, bai kalekoarenari eta bai
»MENDIKOARENARI, zarraila berriak jarri behar izan zizkien.»

Ikus ditekenez, MENDI izena lehenbizikoan bere soillenean azaltzen da; bigarrenean, ordea, -KO deklinaketa-atzizkia hartua du. Hirugarrenean berriz, -A atzizki mugatzaillea bereganatu, eta hor dugu berriz ere deklinakizun, behin eta berrizko atzizki-hartzeen bidez

mendi, mendiKO, mendikoA, mendikoaREN, mendikoarenA, mendikoarenaRI

sailla osatzerarte. Horixe dugu birdeklinaketa: Deklinakizunek, arau batzuei darraizkiela, atzizki bakar batez ez ezik batzuez ere baliatu ahal izatea.

Gaitasun honek hizkuntzari dakarkion malgutasun eta aberastasunaz ez dut hemen jardungo. Harrigarri dena, zenbait gramatikalarik hortaz bereziki ez jardun izana; Azkuek eta Villasantek, adibidez, iraisean eta sakontzeke aipatzen dute. Gakizkion, beraz, birdeklinaketaren arau eta xehetasunak ahalik eta argien emateari.

Hona, lehen-oiñarri gisa, auskal-deklinaketaren kuadro bat:

| | SOILLA | BAKARRARENA | ASKARRARENA |
|--|--|--|--|
| A) 1.—NOR, ZER 2.—IÑOR, EZER 3.—NORTZAT, ZERTZAT | SEME SEME-(r)IK SEME-TZAT | SEME-A — SEME-A-TZAT | SEME-AK — SEME-E-TZAT |
| B) 1.—NORK, ZERK 2.—NORI, ZERI 3.—NORTAZ, ZERTAZ 4.—NOREKIN, ZEREKIN 5.—NOREKIKO, ZEREKIKO 6.—NOREN, ZEREN | SEME-K SEME-(r)I SEME-Z SEME-[re]KIN SEME-[re]KIKO SEME-[re]N | SEME-A-K SEME-A-(R)I SEME-A-Z SEME-A-[re]KIN SEME-A-[re]KIKO SEME-A-[re]N | SEME-E-K SEME-E-I SEME-E-Z SEME-E-KIN SEME-E-KIKO SEME-E-N |
| 7.—NORENTZAT | SEME-[re]N.TZAT | SEME-A-[re]N.TZAT | SEME-E-N.TZAT |
| 8.—NORENGAN 9.—NORENGANA 10.—NORENGANUNTZ 11.—NORENGANAIÑO 12.—NORENGANDIK 13.—NORENGATIK | SEME-[re.N]GAN SEME-[re.N]GANA SEME-[re.N]GANUNTZ SEME-[re.N]GANAINO SEME-[re.N]GANDIK SEME-[re.N]GATIK | SEME-A-[re.N]GAN SEME-A-[re.N]GANA SEME-A-[re.N]GANUNTZ SEME-A-[re.N]GANAINO SEME-A-[re.N]GANDIK SEME-A-[re.N]GATIK | SEME-E-[N]GAN SEME-E-[N]GANA SEME-E-[N]GANUNTZ SEME-E-[N]GANAINO SEME-E-[N]GANDIK SEME-E-[N]GATIK |
| D) 1.—NUN 2.—NORA 3.—NUNDIK 4.—NUNGO 5.—NORUNTZ 6.—NORAIÑO | MENDI-TA-N MENDI-TA-(R)A MENDI-TA-TIK MENDI-TA-KO MENDI-TA-RUNTZ MENDI-TA-RAIÑO | MENDI-(A)N MENDI-(R)A MENDI-TIK MENDI-KO MENDI-RUNTZ MENDI-RAIÑO | MENDI-ETA-N MENDI-ETA-(R)A MENDI-ETA-TIK MENDI-ETA-KO MENDI-ETA-RUNTZ MENDI-ETA-RAIÑO |

BIRDEKLINAKETA

Hona hemen, orain, horri dagozkion zenbait ohar.

a) Deklinakizuna bokalez ala kontsonantez bukatu zenbait bereizkuntza gertatzen direla jakiñekoa da; adibidez,

«zenbait *seme-K* ez die gurasoei jaramonik egiten»,
baiñan «zenbait *gizon-(e)K* hori sinistu egiten dute»

Hemen ez gera hoietaz arduratuko, birdeklinaketaz jarduteko ez bait-dugu beharrezko.

b) Mako makurren () artekoak lotura egiteko edo betegarri dira:

«edozein *seme-(r)I*», baiñan «edozein *gizon-I*».

d) Taketa [] arteko letra aundi nahiz txikizkoak, aukerako,

seme-A-GAN, *seme-A-N.GAN*, *seme-A-reN.GAN*,

adibidez, hirurak zillegi direla.

e) Villasantek ¹ ez du B13-rik ematen.

f) Larresoron iritziz ², euskal-deklinakereango lehenbiziko bereizkuntza EZEZAGUNA/EZAGUNA bide da gero, ezagunetan, BAKARRA/ASKARRA-rena egiten dela. Nik neuk,

«hemen ez da Etxeberriko Matxin-IK azaldu»
«Irun-I zor zaion ohorea»

bezelakoetan «Etxeberriko Matxin» eta «Irun» ezezagun direla esateari gogor xamar derizkiot. Haren ezezagun litzatekenari nik SOILLA deitu diot.

Gehienetan, -KO atzizkiakz baliatuz egin ohi dira lehen ere deklinatuta daudenak birdeklinaketaren gai, honela:

mendi-RAIÑO + KO → mendiraiñoiko;

azkeneko hau kuadroan SEME-ren tokian jarri, eta honako hauk darizkio:

mendiraiñoiko, mendiraiñoikoA, mendiraiñoikoAK
mendiraiñoikoRIK

1 *La declinación del vasco literario común*. Editorial Franciscana. Aránzazu.

2 *Sustrai Billa*. Irakur Sail.

J. OREGI ARANBURU

mendiraiño^{ko}TZAT, mendiraiño^{ko}ATZAT, mendiraiño^{ko}ETZAT
mendiraiño^{ko}K, mendiraiño^{ko}AK, mendiraiño^{ko}EK
mendiraiño^{ko}RI, mendiraiño^{ko}ARI, mendiraiño^{ko}EI
etab.

-KO delako hori D4-koa bera dela dirudi, harrez gero beste egiteko hau beregain hartua noski. Horren bidezko birdeklinaketa ez diteke nolana ere beti egin; B1 eta B2, adibidez, ez dira birdeklinaketa-gai. «Seme-A-K» eta «seme-A-RI» ezin birdeklina ditezke.

B6 delakoak, berriz, dagoen hortantxe har ditzake deklinaketa-atzizkiak, -KO tartekatu gabe:

$$\text{seme-A-(re)N, semearen-A} \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} \text{semearena-(R)I} \\ \text{semearena-[re]KIN} \\ \text{semearena-[re]NTZAT} \\ \text{etab.} \end{array} \right.$$

Honela sortua bide dugu B7: B6 delakoari -TZAT itsastetik, alegia, gaurregun esangura berezi baten jabe bada ere.

Orobat, berez KO-z bukatzen direnak (B5 eta D4) besterik gabe birdeklina ditezke:

mendi-KO, mendiko-A, mendikoa-RI, ...
seme-A-[re]KIKO, semearekiko-A, semearekikoa-REKIN, ...;

agian, lehen aipatu dugunez berez daramaten KO hori eta besteetan birdeklinaketa-bide dena funtsean bat direlako.

Osa dezagun, honenbestekin, birdeklinaketari dagokion atzizki-zerrenda.

BIRDEKLINAKETA

A)

- 1:
- 2: -ik+ko → -IKAKO
- 3: -tzat+ko → -TZAKO

B)

- 1: — — — —
- 2: — — — —
- 3: -z+ko → -ZKO
- 4: -kin+ko → KINGO
- 5: -KIKO
- 6: -N
- 7: -ntzat+ko → -NTZAKO
- 8: -gan+ko → -GANGO
- 9: -gana+ko → -GANAKO
- 10: -ganuntz+ko → -GANUNTZAKO, -GANUNZKO
- 11: -ganaïño+ko → -GANAIÑOKO
- 12: -gandik+ko → -GANDIKAKO, -GANDIKO
- 13: -gatik+ko → -GATIKAKO, -GATIKO

D)

- 1: -n+ko → -NGO
- 2: -(r)a+ko → -RAKO
- 3: -tik+ko → -TIKAKO, -TIKO
- 4: -KO
- 5: -runtz+ko → -RUNTZAKO, -RUNZKO
- 6: -raiño+ko → -RAIÑOKO

Azter ditzagun orain astiroxeago illunsko gerta ditezkenak.

A2) Gutxitan entzun ohi dena; Lafittek³ honako hau dakar:

«loterian irabazi dugunIKAKO berria ez duzu izan?».

A3) Deklinakera soillean esanahi berezi batez jabetu da:

Matxinen semeTZAKOA («el hijo adoptivo, le fils adoptif»).

B3) Jatorriz bikoitz denaz konturatzeke erabili ohi da: «harrizKO, urrezKO, zurezKO, etab.»; Z-ri KO gaiñeratuta sortua dela argi dago.

3 Grammaire basque, 756.gn atala.

B4 eta B5) Hemen ere, bigarrena lehenbizikoari KO ezartzeak dakarrela baiets ditekendarren, egungo esangurari begira bereizi beharreko ditugu:

«elkarreKINGO (elkarreKIN egondaKO) egunek gure elkarreKIKO adiskidetasuna indartu egin dute».

B7) Villasantek⁴ -TZAT eta -TZAKO berdintzat jotzen ditu, euskaldun askok KO-duna darabiltela dioskula; hala ere,

«liburu hau mutillaRENTZAT (eta ez -TZAKO) dakart»

behar duela garbi dago; beraz,

«liburu hori mutillaRENTZAT da», eta

«hori mutillaRENTZAKO liburua da».

D1 eta D4) Lafittek⁵ «mendiAN + KO → mendiKO» ematen du; nik, bereizi beharrezko derizkiet:

«jaietan, herriKO eta kanpotik etorritako, herriANGO kotxeak oro kokatzen nahiko lan izaten da».

Aspaldi gabe entzuna dut beste honako hau:

«len ogia astean pagatzen genuen; orain, egunean eguneanGOA»⁶.

D4) Lafittek -KO + KO eziñezkotzat jotzen du, baiñan norbaitek bi etxe baditu, bata Eibarren eta bestea Deban, bere etxeko tximiniari kedarra ken diezaiotela agindu, eta «zein etxetakoari?» itaun balegiote,

«DebakoKOari» (hots, DebaKO etxeKOari)

erantzutea erabat bidezko litzatekelakotan nago.

Ikus ditzagun orain -KO hartutako birdeklinakizunen esanahi eta jokabideak. Aita Diego Alzokoak garbi ikusi zuenez⁷, horrelakoak izenlaguntzako bihurtzen dira:

«OtsondoraKo bidea, JaungoikoaganaKO maitasuna, pekatuzKO bidea, ...».

4 *La declinación ...*,

5 *Grammaire basque*, 147.gn atala.

6 Zerainen, Iñurrategiko etxeoandreari jaso.

7 *Estudio sobre el euskera hablado*, 106 orr.

BIRDEKLINAKETA

Altubek ere ⁸, -KO atzizkia datxekien hitz nahiz esakuneez izenlagunarena egin eta ondoren dijoakien izenaren araupeko bilakatzen direla dio. Lehen aipatu dugun B3 dukegu, agian, diodan honen baieztapenik nabarmenena; izan ere,

«harrizKO («pétrea, pétreuse») etxea, urrezKO eraztuna, ...»

bere erapideaz ohartu ere egiteke izenlagun gisa daribiltzagu egunoro.

Ohartuz gero horrelakoek ba dute, ordea, berezko izenlagunegandik bereizten dituen zerbait, izenarekiko tokia hain zuzen, berezkoak izenaren ondoren (etxe EDERRA, bide LUZEA, harri AUNDIA) eta besteok berriz, ikusi dugunez, aurrean jartzen bait-dira ⁹.

Dauden hartan (KO-rik gabe) birdeklina ditezkenez ere orobat esan ditekete:

«etxeKO giroa, semeaREN liburua, elkarreKIKO (mutuo, mutuel) maitasuna, ...».

Bukatzeko. Ikusi dugunez, berez KO daramatenez beste, lau ditugu birdeklinakerari buruz gaiñontzekoak ez bezela jokutzen dutenak:

A1 delakoak ez dauka KO-ren iñolako beharrik, bera bait-da deklina-keta osoaren oiñarri;

B1 eta B2 birdeklinatu eziñezkoak ditugu, eta

B6, berriz, dagoen hortantxe biideklinatzen da.

Baiñan, ohartuz gero, hoi etxek ditugu hain zuzen aditz-flesiotan esku har dezaketanak: A1, B1 eta B2, NOR, NORK eta NORI-ri dagozkienak, eta B6 berriz, nere ustez iñoiz NORK delakoaren adierazpide izan eta harrez gero orain-ezeko aldietan egun darabiltzagu N-, H-, GEN- eta ZEN, aurrizkien sorburu gertatutakoa ¹⁰.

Bereizitasun horri funtsezko bestelakotasun baten ezaugarri deritzat.

8 *Observaciones al tratado de "Morfología vasca"* 23.gn orr..

9 Iñoiz bestela ere erabilli ohi dira. Lekuko, arestian neuk idatzi dudana "Aita Diego AltzoKOA", edo "Madalen BusturiKO" abesti ezaguna.

Oker ez banago, norbaiten nungotasuna dela eta erabilli ohi da. Duela zenbait urte, Etxaidek bere liburu-tako bati jarritako "Amasei seme EuskalerrriKO" izenari haizu eta oker erizten ziotenen arteko eztabaidagai gertatu zen.

10 Ikus nere *Euskal-aditzaz zenbait gogoeta*. Fontes, 17.gn alea.

Orainartekoetan ez ditugu deklinaketa eta birdeklinaketaren gai izan ditezken beste batzu aipatu, aditz-flesioak alegia.

Izan ere, hoik ere deklinakizun ditugu, eta DATOR, DAGO, DABIL flesioegandik

datorrENARI, dagoENAREKIN, dabilLENARENTZAT

bezelakoak ateratzen dira; areago,

dabilLENARENTZA KO, dabilLENARENTZAKO A, dabilLENARENTZAKO A REN, ...

ere bai, birdeklinakuntzaren bidez. Baiñan, ikus ditekenez, atzizkiok ez zaizkie flesioei bere soillenean daudela itsasten, tartean lokarri gisa -(e)N ezarri ondoren baizik. -(e)N horrek ba dauka ordea, aditz-flesioei datxikiela beste egitekorik ere:

1) Erabakia edo agindua adieraztea: «Jeiki nadiN! goazeN!».

2) Xede bat:

«lasaiago datorreN (etor dediN) nere astoa utzi diot»;

horrelakoetan, gaiñera, -(e)N daramana beste aditz baten («utzi diot») menpeko agertzen da; orobat, ondorengo aditzaz gaiñera aurrean itaun-hitzen bat dagoanean ere:

«ZENBAIT gizon datorreN ikustazu»

«NUN dabilen ez dakit»

Esakunea bertan behera bukatzen denean berriz, harridura adierazi ohi du:

«ZENBAIT gizon datorreN!!»

3) Gaiñera, eta hau dugu noski bere egitekorik beiñena, izenen aurrean erderatako «relativo, relatif», hots, elkarrekiko ariaren erakusgarri da; hona hemen Altubegandik jasotako adibide batzu:

«ikusi dedaN gizona» (el hombre QUE he visto, l'homme QUE j'ai vu)

«etorri daN gizona» (el hombre QUE ha venido, l'homme QUI est venu)

«jayo nintzaN etxea» (la casa EN QUE yo nací, la maison OU je suis né),

BIRDEKLINAKETA

eta berdintsu

«ekarri dudaN liburua» (el libro QUE yo he traído, le livre QUE j'ai apporté).

Azkeneko eginkizun hau aztertzeari ekingo natzaio.

Lafon-ek honela aldatzen digu SCHUCHARDT-ek atzizki hontaz diona:

«Ce suffixe se distingue de tous les autres en ce qu'il n'a ...
»aucune signification particulière, mais au contraire, la plus générale;
»aucune autre signification que celle que le trait d'union
»possède dans l'écriture»¹¹.

Euskeraz: Esanahi zehatz baten jabe ez baiñan, aitzitik, ahal eta zabalenaren jabe izateak bereizten du atzizki hau besteegandik; idazketako marra txoak bezelatsu, ez dauka lokarri huts izateaz besteko adierazgarritasunik.

Guri, ordea,

gizona menditik dator / menditik datorreN gizona

bezelako bi elkarren ondoan jarri, eta SCHUCHARDT-ek diona siniskaitz gertatzen zaigu, -N hori lokarri-ikur baiñan gehiago dela argi dagoela bai-dirudi. Nundik-norakoak, mugak eta ñabardurak garbitzen daude lanak.

Aurrerago baiño lehen, zera esagun: Hemen ere, birdeklinaketako -KO atzizkiarekingoetan bezelaxe, -(e)N-ren eskuhartzepeko hitz nahiz esakuneak ondorengo izenen izenlaguntzako bilakatzen direla.

Har dezagun orain, aztergai, NOR, NORI eta NORK daramatzen adizdun esakune bat:

«irakasleek mutillari libururuak dakarzukiote»,

adibidez; horri, honako hau xuxe-xuxen darizkio:

«mutillari liburuak dakarzukioteN irakasleek ...»

«irakasleek mutillari dakarzukioteN liburuak ...»

«irakasleek liburuak dakarzukioteN mutilla ...»;

¹¹ *Le système du verbe basque au XVIe. siècle*, 454.gn orr.

hioen esanahia garbi dago, iñolako nahaspiderik gabe; orobat NORK gabeko

«mutillari datorkioN adiskidea ...»

«adiskidea datorkioN mutilla ...»

bezelakoetan ere eta hori, noski, -(e)N atzizkia flesio-barneko NOR, NORI eta NORK direlakoei bete-betean dagokielako ¹².

Lehen Altubegandik jaso ditudanetan ba zen, ordea, baldintza hori betetzen ez zuen bat; hura orain-aldira aldatu, eta beste batzu gehi diezaizkiodan:

«ni bizi naizen etxea»

«ni nabilleNn bidea»

«ni natorreN herria».

Hiru flesio hoietan ez da NI baizik azaltzen eta ETXEA-k, BIDEA-k eta HERRIA-k ez dute iñola ere eskuhartzen; -N atzizkia zuzenean ez dagokie beraz, eta horretxek dakarke horrelakoak iñoiz illun gertatzea. Adibidez,

«ni natorreN herria»

entzutean, ezin «herriRA» ala «herriTIK» natorren antzeman dakioke; horrelakoez ziharduela egin zuen Mitxelenak Euskaltzaindiaren batzar baten harako itaun hura: «Ni bizi naizen etxea» euskera al da?

Ene ustez, hori egun euskera denik ezin uka diteke. Hizkuntzan zehar-bidez sartutakoa izatea besterik da ordea.

Hona hemen frantsesaz ari dela Vendryès-ek dioskuna ¹³:

«En français, le peuple rejette en parlant les formes DONT, »AUQUEL, POUR LEQUEL, qui lui paraissent lourdes et gênantes; il se contente de marquer la relation par un QUE, quitte »à indiquer ensuite dans la proposition relative le genre de relation qu'il a en vue: au lieu de l'homme DONT je connais la

¹² Lekuonak, EUSKERAZKO "RELATIBOA" idazlanean (EL DIARIO VASCO, 1874-IV-28), "caso recto" (NOR eta NORK) edo "caso oblicuo" (NORI) gertatzen diranean jazonen dela diosku esandakoa bera beste era baten adierazita beraz. Horrelakoetan

"irakasleek, NORTZUK mutillari liburuak dakarzkioN ..."

"liburuak, ZEINTZU irakasleek mutillari dakarzkioN ...»

"mutilla, NORI irakasleek liburuak dakarzkioN ..."

modukoetara jotzea alper-alperriko denaz nornahi ohar diteke.

¹³ *Le langage*, 174.gn orr.

BIRDEKLINAKETA

»fille», «le patron POUR LEQUEL je travaille», «le pauvre A
»QUI je fais l'aumône», on dira: «l'homme QUE je connais SA
»fille», «le patron QUE je travaille POUR LUI», «le pauvre QUE
»je LUI fais l'aumône»¹⁴.

Hor beraz frantsesez ere (eta gaztelaniereaz ere berdin esan diteke) herri eta gramatika-hizkeren arteko gaizki etortze bat.

Euskerari gagozkiola, hauzia hontan dago: Aditzaren ondoren dijoan izena flesioan nolabait eskuhartzen dutenetakoa denean, -(e)N atzizkia dugu bien arteko ariaren adierazpide jator; gero, -(e)N-z baliatze hori berez dagokion hortatik bestetara zabaldu denean, jokabide horren hortarakorik ezak esakuea eratzeko nolabaiteko beste osapidetara jo beharra ekarri du.

Lekuonak, horrelakoetam, eziñaz etsi eta zeharka eman ohi du adierazkizunaren muiña; hara berak egindako itzulpen batzu¹⁵:

(VENIT HOMO) CUIUS filius infirmabatur Capharnaum =
= semea Kafarnaunen gaxo zeukan gizon bat.

Maria Magdalena, DE QUA eiecerat septem daemonia =
= zazpi etsai kendu zizkion Maria Magdalena.

Bide hori literaturan baliagarri datekela agerian dago, baiñan itzulpenlanetan hitzez-hitze kotik urrutitxo garamatzala ere ezin uka; bestalde, batzutan zeharbide hori arkitzeak berak ere lanak emango lizkiguke¹⁶.

Itzulpenetarako behar izate hori dute hain zuzen beste batzuek erabat bestelako bide batetik abiatzeko bultzagarri; hona, diodanaren baieztagarri, Mendizabalek idazten duena¹⁷: «Ba da beste bat ere, euskera mintzatuan »erabiltzen ez dana, baiña erderatik zenbait joskera biurri itzultzekoan oso »egoki datorrena: ZEIN galdetzeko izenordea relatibu-izenorde biurtzea. Or-

14 Frantsesez, beraz,

“gizona NOREN alaba ezagutzen dut”
“ugazaba NORENTZAT lan egiten dut”
“eskekoa NORI eskupekoa ematen diot”

esan beharko lituzkete, hitzez-hitz eta zatirik-zati itzulita.

15 *Euskerazko “Relatiboa”*.

16 “Al pueblo DEL QUE yo vengo le falta agua”
itzuli nahiko bagenu, esaterako.

17 *Euskaldunentzat gramatika euskeraz*, 108-109 orr.

»duan, relatibu-izenordea izen ordeztuaren ondoren jartzen da». Eta adibide hauk jartzen ditu:

«gizona, ZEINĖKIN ni Tolosa'tik etorri bainintzan, Donosti'koa zan»

«gizonek, ZEINTZUENGATIK Jainkoaren Semea gizon egin bain, ez zioten arrera onik egin»

ondoren, ohar- gisa, zera dioskula: «Trakets xamarra da ZEIN- jende hau; »baiña erderazko zenbait dokumentu ITZEZ ITZ eta ezer galdu gabe itzuli »bear izaten danean, derrigorrezkoa da. Erderazko zenbait itz artzen ditugun »bezelaxe, joskera ori ere artu bearra dago erderazko beste ” joskera aldre- »bes” oiek ere euskeratu bear diranean. Ondo dago euskeraz idaztekoan beste »relatibu jatorragoa erabiltzea; baiña erderatik euskeratzekoan ezin ditezke »erderazko relatibuaren XEAPEN guztiak bete betean itzuli ZEIN au gabe».

Jokabide horrekin bat datoz Altubek, berak onartu ezarren, gai hontazko bere azterketaren abiagune gisa ematen dituenok ere:

«gizona, NOREN alaba ezagutzen dudaN, ...»

«ugazaba, NORENTZAT lan egiten dudaN, ...»

«etxea, NUNDIK irten zeraN, ...»¹⁸.

Ikusi dugunez, Mendizabalek berak horrelakoei trakets eta besterik eziñean erabiltzeko erizten die¹⁹; zerbait hitzez-hitz euskeratu eta jatorriko hizkuntzako xehetasun guztiak zehatz eman behar direnerako. Azkenaldi hontan, ordea, esate-modu hoik ez dira itzulpenetan bakarrik erabilli ohi izan; aurrean daukat, adibidez, euskal-aldizkari baten argazki baten ondoan agertu zen hau:

«Bergarako Errege Seminarioa, NON Distantzi Unibersitatea kokatuko deN».

18 Beste hau ere jartzen du:

“eskekoa, NORI limosna eman oi diodaN»

Hau ez dugu, ordea, hemen aztertzen dihardugunetarikoa, flesioko NORI-ri bete-betean ESKEKOA dagokiola

“limosna eman oi diodaN eskekoa”

bestarik gabe osorik bait-dago.

19 Beharrik, bere liburuan ageri denez beste batzutan ariazko jatorrez baliatzen bait-da, dagozkien erabil-legeez ohartu ez bada ere.

BIRDEKLINAKETA

Axularrek ere (beste idazle asko eta askok bezela) erruz darabiltza; hona GERO-ren «Gomendiozko kartan» irakur ditekenez bat:

«... ioan zen Donapalaiaora, NON baitzen orduan Nafarroko Par-
lamenta ...».

Ikusi dugunez, Mendizabalek herriak esakera hoik ez darabiltzala dio, eta Altubek ere kulturakeriatzat jotzen ditu Vendryès-ek frantsesezko QUE soillaz bestelakoez diona aipatzean.

Joskera horren aldrebeskeriaz konturatzeko,

«gizonari, "ZEIÑEKIN" Tolosa'tik etorri bai-nintzan, liburu bat eman nion»

bezelako bat irakurtzea aski, kakotxartekoak hitzurrena erabat eten egiten bait-du, bi NORI-dunak («gizonaRI», eta «eman NION»), elkarregandik oso urruti gelditzen direla; Altubek, esakunearen jarraitasunari nolabait eutsi nahian, beste era hau eskeintzen du:

«NOREN alaba ezagutzen dudaN gizona ...»

«NORENTZAT lan egiten dudaN ugazaba ...»

«NUNDIK irten nintzaN etxea ...»

«NOIZTIK emen bizi naizeN urtea ...»,

eta hoienez hariko lirateke beste hauek ere:

«ZEIÑEKIN ni Tolosatik etorri nintzaN gizona ...»

«ZEINTZUENGATIK Jainkoaren Semea gizon egin zaN gizo-
nek ...»

«Distanzi Unibersitate HAN kokatuko deN Bergarako ...»

Mendizabalek zionaren alderantzizkoak beraz, hark izena hasieran eta ondoren ariazko izenordea jarri behar direla bait-zion. Altubek erakoek bes-teen hitzurren-etenik ez daukate, noski, eta beti NOR, NORENTZAT, NUN-
DIK, ... erabili beharrean

«HAREN (edo eta BERE) alaba ...»

«HARENTZAT lan egiten ...»

«HANDIK (nahiz BERTATIK) irten nintzaN ...»

«ORDUTIK (edo HARREZ GERO) ...»

balerabiltza are zailuago lirateke.

Baiñan oraindak ere ba da hoietan erabat gogobetegarri ez denik, -(e)N atzizkiak (flesio-barnean eta kanpoan legoken zer beraren bi azalpenen arteko hari gertatzen ez dela) bere egitekoaz kanpo bait-dirau.

Birdeklinakereaz geniharduela esandakoaz oroi gaitezen. Han, nahi hainbat atzizki zeramatzan hitz bat ondorengoaren izenlaguntzako bilaka zedin -KO atzizkia gaiñeratzea aski zela ikusten genuen. Baiñan aditz-flesioekikoe-tan ere jokabide hori erruz erabili ohi da flesioaren ondorengoa aldiari buruzko denean:

- «semea etorri deN-(e)KO ordua ...»
- «alabari adiskidea joan zitzaioN-(e)KO eguna ...»
- «Madrident egon nintzaN-(e)KO urtea ...».

Hori bera besteetara zabal dezagun, bidebatez, eta jarraitasunaren onetan, aditza baiño lehenagoko argigarriak flesioegandik ahalik eta hurbillen ematen ditugula; honako hauk aterako zaizkigu:

- «HAREN alaba ezagutzen dudaNeKO gizona ...»
- «HARENTZAT lan egiten dudaNeKO ugazaba ...»
- «HANDIK (BERTATIK) irten naizeNeKO etxea ...»
- «hemen ORDUTIK (ORDUZ GERO) bizi naizeNeKO urtea ...»
- «ni Tolosatik HAREKIN (edo BERAKIN) etorri nintzaNeKO gizona ...»
- «Jainkoaren Semea HAIENGATIK gizon egin zeNeKO gizonek...»
- «Distantzi-Unibersitatea BERTAN kokatuko deNeKO ...»
- «ioan zer orduan Nafarroko Parlamenta BERTAN zeNeKO Donapalaia ...»

etab²⁰.

20 19.gn oharrean nionez, Mendizabalek bere liburuan ematen dituen adibideetan (108.gn orr.) —N soillaren eta —KO gaiñeratutakoaren arteko bereizkuntza zuzen baiño zuzenago damaigu:

“hik egiten dudaN lana”

(LANA bait-da flesioaren ZER), baiñan

“atera zaNeKO lekura itzuli zan berriro deabrua”

(LeKUA-k ez bait-du ZAN flesioan eskuhartzen).

Dirudianez, ordea, ez dio senak eginarazten dion bereizkuntza horren nundik-norakoari antzeman.

BIRDEKLINAKETA

Esandakoak arau batzutan bilduz, hauk lirateke atzizki hoién erabil-
geak:

A) Aditzaren ondorengoak flesioan eskuhartzen duenean, -(e)N soilla
dagokio; adibidez,

$$\frac{\text{gizona}}{\text{A}} \text{ mendian } \frac{\text{da-bil}}{\text{a}} \rightarrow \text{mendian dabil}^{\text{N}} \text{ gizona}$$

$$\frac{\text{ikasleari}}{\text{B}} \frac{\text{adiskidea}}{\text{A}} \frac{\text{da-tor-kio}}{\text{a}} \frac{\text{b}}{\text{b}} \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} \text{ikasleari datorkio}^{\text{N}} \text{ adiskidea} \\ \text{adiskidea datorkio}^{\text{N}} \text{ ikaslea} \end{array} \right.$$

$$\frac{\text{irakasleek}}{\text{D}} \frac{\text{mutillari}}{\text{B}} \frac{\text{liburuak}}{\text{A}} \frac{\text{da-kar-z-kio-te}}{\text{a} \quad \text{a}' \quad \text{b} \quad \text{d}} \rightarrow$$

$$\rightarrow \left\{ \begin{array}{l} \text{irakasleek mutillari dakar}^{\text{N}} \text{zkiote}^{\text{N}} \text{ liburuak} \\ \text{irakasleek liburuak dakar}^{\text{N}} \text{zkiote}^{\text{N}} \text{ mutilla} \\ \text{mutillari liburuak dakar}^{\text{N}} \text{zkiote}^{\text{N}} \text{ irakasleek} \end{array} \right.$$

B) Bestetan, editz-flesioei -(e)N-z gaiñera -KO ezarri behar zaie. Bestal-
de, gerta ditezken illuntasunak uxatzeko bide, aditza baiño lehen argigarriren
bat (izenordea edo aditz-laguna edo) ere behar izaten dute:

$$\text{ni} \left\{ \begin{array}{l} \text{HANDIK} \\ \text{BERTARA} \end{array} \right\} \text{natorre}^{\text{N}} \text{NeKO} \text{ etxea}$$

$$\text{nere semea sarri} \left\{ \begin{array}{l} \text{HARUNTZ} \\ \text{HARAIÑO} \end{array} \right\} \text{joan ohi de}^{\text{N}} \text{NeKO} \text{ baserria}$$

$$\text{Peruk dirua} \left\{ \begin{array}{l} \text{HARENTZAT} \\ \text{HAREGANDIK} \end{array} \right\} \text{hartu due}^{\text{N}} \text{NeKO} \text{ gizona,}$$

etab.

Nahaspide-ariskurik ez dagoenean, ordea, esakuneok aurreko argigarri-
rik gabe ere era ditezke:

gizona [HAN] bizi de^NNeKO etxea

neskari adiskidea [ORDUAN] etorri zitzaio^NNeKO garaia

irakasleek mutillari liburuak [BERTAN] dakar^Nzkiote^NNeKO zorroa.

J. OREGI ARANBURU

Iñoiz, aditzaren esanahia dela eta, -KO-rik gabe ere okerpiderik ez izatea gerta ditekete; horrelakoetan -(e)N soillaz baliatzea ere zillegi dateke:

ni [BERTAN] natzaN [-eKO]ohea
zuek [HAN] zaudeteN [-eKO] gela.

Zenbaiti, agian, saio hontan ariazkoei buruz eman ditugun arauak zorrotzegi, estuegi irudituko zaizkio; areago, erdal-hitzak hartu ohi ditugun bezelaxe joskerak ere onartzeari egingarri derizkiotenei.

Nik neuk, mailla ezberdiñekotzat jotzen ditut bi maillebuok. Adibidez, «hori zer da?» itaunari

«kaballua da»

erantzungo liokenak ereduzko euskera lerabilkenik ez nuke esango baiñan, hala ere,

«da zaldia»

liokenarena baiño jatorragotzat jotzeko ez nuke iñolako zalantzarik izango. Euskaldun guztiak hontan nerekin bat letozkelakotan nago.

Erderetatiko itzulpenak direla eta berriz ez nuke beste horrenbeste esango. Ikusi dugunez, ba da jatorriko hizkuntzaren xehetasun guztiak eman ahal izateko bere hitzurrenara makurtu behar genukela pentsatzen duenik; nere ustez, aitzitik, horretarako askotan erabat bestela jokatu beharra dago, hots, euskal-joskera jatorrari heldu beharra.

Alderantzizko batzu ikus ditzagun, diodanaren indargarri. Adibidez,

«hori da ezagutu nahi nuen gizona»

gaztelanieraz emateko euskal-joskerari orpoz-orpo bagindarraizkio,

«ese es el hombre que yo quería conocer»

genioke, baiñan

«es ése el hombre que yo quería conocer»

emanda ez ote genituzke zuzenago jasoko, nahiz hitzurrena aldatu, euskerazkoaren esangura eta ñabardurak?

BIRDEKLINAKETA

Adibidezago:

«etxe aundi aundi bat»

itzultzeko, ez dut ezein erdal-idazlek

«una casa grande grande»

idatziko lukenik uste, «muy grande, enorme» edo horrelakoren bat baiño.

Orobat,

«Ez al duzu Peru agurtu?- Ez, berandu heldu naiz eta ...»

«he llegado tarde y ...»

erderaz parregarri litzateke. Hizkuntza guztiek ba dituzte urratu eziñezko lege eta itzuli eziñezko joskerak.

Ni neu, oraingo hontan, erabilgarri derizkiedan batzu aztertu eta ahalik eta argien ematen saiatu naiz. Asmatu dudana ala ez, irakurleak erabaki beza.

J. OREGI ARANBURU

Bergara, 1976 - Urria

AZKEN-OHAR BAT

Idazlan honen egitamua burutu ondoren eskuetaratu zait Aita Villasante-n *SINTAXIS DE LA ORACION COMPUESTA* liburu baliotsua.

«Zein»-en bidezko ariazkoek ba diharduenarren, aldatu ditudan Mendi-zabal-enak berak ematen dizkigu, funtsean; ez dut, beraz, esandakoetan alde-tzekorik ikusten eta, are gutxiago, Euskaltzainburuarena erderaz dagoelarik itzulpena eman beharko nukeenez gero.

Axular-ek «zein»-dunak erruz zerabiltzala jakiñekoa da; horri, ordea, horrelakoak noraezeko izatea ez dario berez, GERO-ren goren-mailla dazaugula ere. Erderaz norbaiti otuko ote litzaioke, klasikoek horrela zerabilte-la eta,

«el hombre CUYA es esa casa ...»

modukorik orain erabiltzea nahiz eta, «zein»-dunak ez bezela, hitzurrenez jator izan?

Eta Villasante-k berak dioskunez esate-era hoiek herri-hizkeran arrotz dirautelarik, areago.

SUMMARY

REDECLENSION

The first part of this article refers to the fact that it is possible for Basque nouns that are already in a declined form, through the addition of the corresponding suffix, to undergo a new declension. In the majority of cases this is done through the previous addition of the suffix -KO, which puts the noun in position to receive a further suffix; for example,

etxe-RAIÑO = up to the house
etxeraíño-KO = from up to the house
etxeraíñoko-A = the one from up to the house
etxeraíñokoa-RENTZAT = for the one from up to the house.

As is well known, the suffix used in declension affects the whole phrase in Basque, thus making an understanding of this mechanism of obvious interest; nevertheless the mechanism of redeclension has not received from some authors more than superficial attention.

THE SUFFIX -(e)N AS A RELATIVE

In Basque, the suffix -(e)N appended to a verbal flexion which precedes a noun converts the first into a subordinate of latter, as for instance:

gizona dator = the man comes
datorreN gizona = the man WHO comes.

Moreover, the function of this suffix appears unclear to linguists to the point where Schuchardt, who Lafon cites as being in agreement with him, attributes to it the function of being a mere hyphen, the equivalent of a dash in writing. The author of this article attempts to determine the primitive and characteristic function of the -N, and concludes that it is used to subordinate and refer the verbal form to the noun which comes afterwards, which has, necessarily, to come into the verbal flexion as agent, patient, or object of the dative; from

BIRDEKLINAKETA

$$\begin{array}{ccccccc} \text{irakasleek} & \text{mutillari} & \text{liburuak} & \text{zorroan} & \text{da-kar-z-kio-te} & = & \\ \hline \text{D} & \text{B} & \text{A} & & \text{a} & \text{a' b d} & \\ \\ = & \text{the teachers} & \text{take} & \text{the books} & \text{in the bag} & \text{to the boy}, & \\ \hline & \text{D} & & \text{A} & & \text{B} & \end{array}$$

(here the capitals have their corresponding letters in small type situated under the verbal flexion), the following can be deduced:

irakasleek mutillari zorroan dakarzkioteN liburuak
 irakasleek liburuak zorroan dakarzkioteN mutilla
 mutillari liburuak zorroan dakarzkiotenN irakasleek.

When the condition explained above is not fulfilled an ambiguous phrase often results:

$$\begin{array}{ccc} \text{ni} & \text{natorreN} & \text{herria}, \\ \hline \text{A} & \text{a} & \text{B} \end{array}$$

in which HERRIA does not intervene in the verbal form and is felt as incorrect, or, at least, imprecise, as it could be understood as

the town TO WHICH I come,
 the town FROM WHICH I come,
 the town TOWARDS WHICH I come, etc.

The author, basing his opinion on that which is current practice when the noun following the verb is related to time, thinks that in these cases (in a similar way to that which occurs with redeclension) the -KO is added to the verbal form so that, for example in the sentence which have already seen as a model there would be the following result:

irakasleek mutillari liburuak dakarzkioteN-eKO zorroa.

Finally, and in opposition to constructions of the type

$$\begin{array}{ccccccc} \text{herria, NORA} & \text{ni} & \text{natorreN} & = & \text{the town} & \text{FRON} & \text{WHENCE} & \text{I come} \\ \hline & 1 & & & 1 & & 2 & \end{array}$$

J. OREGI ARANBURU

which evidentially do not correspond to the spirit of the language, and which the people do not use, but which have been used by many translators in servile imitation of neighbouring languages, it would seem more correct to use the following:

ni HANDIK natorreNeKO herria = the town THAT I come
 A 1 a 2 B B 2 A

FROM THERE

1

ni BERTARA natorreNeKO herria = the town THAT I come
 A 1 a 2 B B 2 A

TO THE SAME.

1

These do not break the rhythm if the sentence. This is even more evident when the noun is not in the nominative case; compare, for instance,

«herriari, nundik ni natorren, ura falta zaio», and
 «ni handik natorreneko herriari ura falta zaio».

The article finishes with a brief consideration of the concept of literalness in translation.